



# ETXEBERRIAK MARKA HAUTSI DU IRURAN

San Migel jaien baitan Idoia Etxeberria harri-jasotzaile oriotarrak bost jasoaldi egin zituen 138 kiloko koadroarekin >7

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**


# hitza



**Asteartea**  
**2010-09-28**

VIII. URTEA 2.085. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Asteasun produktu desberdinak ikusi ahal izan ziren herenegun, egun osoan zehar, artisauek ere izan ziren. S. GOMEZ

## BERTAKO PRODUKTUAK AZOKETAKO JAUN ETA JABE

**GIZARTEA** Asteasu, Alegia, Ibarra eta Bidegoianen azokak izan ziren nagusi igandean; salmenta onak izan zirela diote parte-hartzaileek 4



Antolatzaileak gustura azaldu dira probaren balantzea egiterakoan. HITZA

## 33 parte-hartzaile izan dira III. Zaldi Lasterketan

**BEDAIO** Ioritz Saralegi ugartearra eta Taliban bere zaldia izan ziren garaileak 3

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza**  
bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Asteegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 beheak • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31180 Leizua

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:

• N A :

• Lanbidea:

• Jaioteguna:

• Helbidea:

• Herria:

• P.K.:

• Tel.:

• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia:

## Esteban Nieto omendu dute gertukoek

**ABALTZISKETA** • Esteban Nieto izan zuten gogoan haren gertuko eta lagunek, Larraitz auzoan dagoen monolitoaren aurrean herenegun egindako ekitaldian. Egungo espere politika eta bere ondorioak salatu zituzten, eta Nieto horren ondorioz hil zela gogoratu zuten. Bertsuak abestu eta agurra dantzatu ostean, larrosa gorriak utzi zituzten monolitoaren ondoan. Esteban Nieto 1999. urtean hil zen, kaleratu eta 5 hilabete eta 20 egunera, «espetxeko medikuen utzikeriaren erruz garatutako minbiziazen eraginez». HITZA



## Eskualdekoak gogoan Gudari Egunean

**Politika** • Geldialdiak egin zituzten atzo eguerdian eskualdeko ikastetxeetan; ekitaldian 200 lagun inguruk hartu zuten parte.

### ERREDAKZIOA

Gudari Eguna izaki, hainbat ekitaldi egin zituzten atzokoan eskualdean. Ikasleek esaterako, geldialdiak egin zituzten eguerdian Orixeñ, Laskorainen eta Tolosaldea Goi Mailako LH Institutuan, eta ekitaldian 200 lagun inguru bildu zirela adierazi zuten. Iluntzerako, berri, manifestazioa zegoen iragarrita Tolosako kaleetan.



Laskorain ikastolaren kanpoaldean hainbat argazki eskegi zituzten. HITZA

Frankismoak bere azken biktimak erail zituenetik 35 urte igaro direla adierazi zuten, Gudari Eguna «Euskal Herriaren alde bizi-tza

eman duten eta borrokatu duten guztiak omentzeko» sortu zela gogoratzearrekin batera. «Atzoko, gaurko eta biharko gudariei ohore

egiteko eguna da, guk nahi baino gehiago baitira albotik eramanduz gigituen kideak; horrek erakusten du Espainiar estatuaren ezintasuna herri borroka bati aurre egiteko», adierazi dute.

Bestalde, «Euskal estatuaren sorrerarako borrokan, urte luzeetako lanaren ondorioz» bide berri bat, estrategia berri bat ireki dela azaldu dute. «Kolpeak jaso ditugu bidean, eta lagun eta senide asko galdu ditugun arren, gu, gizartea gara giltza, eta gurekin behar dugun ahalegina askatasuna emango digun olatua sortzeko, joandako guztiak mereri dutelako eta amestuzutena lortzea posible delako», adierazi dute.

## Euskal Jaia antolatzeko bilera egingo dute gaur, udaletxean

**Anoeta** • Urriko bigarren igandean ospatuko dute; bazkarirako txartelak salgai daude urriaren 3ra arte.

### ERREDAKZIOA

Urriko bigarren igandean ospatuko den Euskal Jaia antolatzeko bilera egingo dute gaur, udaletxean, 19:00etan hasita, eta Udaletik herriar guztiak gonbidatu dituzte bertan parte hartzera.

2008. urtean hasi ziren ospatzen festa «nortasuna adierazi eta bertako eta inguruko nekazariei babesa azaltzeko helburuarekin». Hainbat ekitaldi izango dira, eta tartean bazkaria. Bertarako txartelak salgai daude Arkupe, Itzuli, Haizea, Buztina eta Laia tabernetan. 20 euro balio dute (15 euro langabetu eta ikasleentzat eta 10 euro 8 urte beharako haurrentzat), eta eskuratzeko azken eguna urriaren 3a izango da. Bestalde, egun horretan laguntzeko arduen zerrendak Itzuli taberna jarri dituzte.

## T Telefonoak Larrialdia. ((112))

### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

**Tolosa.**

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930

**GARRAIOAK.**

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

**BESTERIK.**

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

## L Laburrak

### Independentistak sarearen batzarra, gaur 20:00etan

**TOLOSA** • Tolosako Independentistak sareak batzarra egingo du gaur, 20:00etan Kultur Etxean. «Independentzia bakarrik ez da etorriko, ekarri egin behar dugu», adierazi dute, eta horregatik, independentziaren aldeko guztiei deitzen diete euren ekarpena egitera.

### Yoga klasiko ikastaroa emango dute asteartean

**AMEZKETA** • Yoga klasiko ikastaroa emango dute asteartean, 18:00etatik 19:30era, eskoletan. Urriaren 5ean hasiko dira klaseak, eta izena eman nahi duenak edo informazio gehiago jaso nahi duenak 619 08 43 43 telefono zenbakira deitu beharko du.

### Asis Sarearen hileroko bilkura egingo dute etzi

**TOLOSA** • Asis Sarearen otoi-zaldi bilkura izango da etzi, hilaren 30ean, Klarisen komentuan, 19:30ean hasita. Informazio gehiagorako 646 21 48 96 zenbakira deitu, [asisarea@arantzazu.com](mailto:asisarea@arantzazu.com) helbidera idatzi edo [www.asisarea.org](http://www.asisarea.org) webgunera jo beharko da.

### Ipuin kontaketa saioa izango da bihar

**IBARRA** • Ines Bengoa ipuin kontaketa izango da bihar, 18:00etatik aurrera, Benito Izagirre kultur etxean. Bost eta zortzi urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta dagoela saioa azaldu dute. Ibarra Udal Liburutegiak antolatutako ekimena da.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

400 AUKERA HANDIA ETA GUZTIA  
**Kalitatezkoa**

EDARIAK, ELIKAGAIAK, JANTZIAK, ESKULANGINTZA,  
DISKOAK, LIBURUAK, DVDak...

SARTU ETA  
EROSI GUREAN

[www.euskalherriko](http://www.euskalherriko)  
**plaza.com**



# Zaldi Lasterketan 33 parte-hartzaile izan dira aurten

**Bedaio** » Antolatzaileak «oso gustura» azaldu dira Lasterketak emandakoarekin; loritz Saralegi irabazi zuen.

## ERREDAKZIOA

Bedaio III. Zaldi Lasterketako antolatzaileak «oso gustura» azaldu dira probaren balantzea egitekoan. Guztira 33 zaldi eta zaldunek parte hartu zuten eta horietako bat Gernikatik etorri zela nabarmendu dute. Ioritz Saralegi ugartearra eta Taliban bere zaldia izan ziren azkarrenak. Baina garrantzitsuagoa da parte-hartzaile guztiak ondo bukatu zutelako proba. Zaldi batek bertan behera utzi behar izan zuen lasterketa beste zaldi batek ostioa jo ondoren. Albaitariak azaldu dutenez, hilabetearen buruan sendatuko da.

Antolatzaileen esanetan «dena ondo» joan zen. Aurreko egunetan

egindako euriak ez zuten zirkuitua gehiegi hondatu. «Lokatza bazegoen, baina gutxi», diote lasterketako arduradunek. «Jendeak oso gustura amaitu zuen lasterketa».

Antolatzaileek nabarmendu duten beste gai bat zaldunen prestaketa da. Federatutako eta federatu gabeko zaldunek parte hartzen dute. Azken hauek aurtengoan zaldiaren paper guztiak ekarri zituztela azaldu dute albaitariak. «Aurrerapausoa da. Horrek esan nahi du federatuta ez daudenak ere zaldiaren egoeraz gehiago kezkatzen ari direla eta, besteak beste, txertoak ari zaizkiela ematen ere», diote antolatzaileak. «Aurreko bi lasterketan ez zuten denek ohitura hori».

## 81 lagun bazkaltzen

Aurtengo berritasuna bazkariarena izan da. Abaetxe taberna-jate-txea orain gutxi ireki da Bedaion eta hori aprobetxatuz bazkaltzeko aukera izan zuten. 81 lagun izan zi-



Lehenengo hiru postuetan gelditu ziren zaldunak, hiruak Ugarteakoak. HITZA

ren bazkaltzen eta azkenean Artubi elkartearekin ere erabili behar izan zuten guztiak zerbitzua emateko.

Antolatzaileen esanetan, parte-hartzaileak asko eskertu dute Bedaion bertan bazkaldu ahal izateak. «Proba bukatu eta dena jaso eta etxera iritsi arte oso berandu egiten zen», diote. Parte-hartzaileek bazkaldu ahal izateko zaldientzat itxiturak jarri zituen antolakuntzak.

Parte-hartzaileek eskertu dute ere antolakuntzak egindako oparia. Izan ere, zaldun bakoitzari, proba hasi baino lehen argazkia egin zitzaion. Gero, probaren bukaeran, argazkiarekin egindako muntaia oparitu zieten zaldunei, bere parte-hartzearen lekuko bezala.

Antolatzaileek eskertu diete bai lasterketa egiteko laguntza eman duten lagunei bai laguntzaile gisa

aritu diren enpresei ere. «Krisi garaia izan arren, laguntza ematen jarraitu dute», nabarmendu dute arduradunek. Datorren urtera begira ere Lasterketa antolatzen jarraitzeko asmoa erakutsi dute. «Urtero hobetzen jarraitzeko helburua dugu. Jendearen iradokizunekin zirkuitua hobetzen ari gara». Antolatzaileek ere animatzen dute hurrengo urtean jendea Lasterketa ikustera joatera.

# San Migel egunera begira daude asteburuko ekitaldien ondoren

**Aldaba** » Jende asko gerturatu zen asteburuan antolatutako ekitaldi desberdinetan parte hartzeko.

## ERREDAKZIOA

Aldabako San Migel jaietan hainbat ekitaldi izan dituzte asteburuan eta orain biharko egunari begira jarri dira, zaindariaren egunera, hain zuzen. Gustura daude antolatzaileak orain artekoarekin. Larunbatean, txupinazoa bota eta gero sagardo dastatzea izan zuten, lehenengo aldiz festetan. 50 lagun inguru izan ziren bertan eta aurki inauguratuko den elkartearen egoitza berrirako sagardoa aukeratzeko erabili zuten dastatzea. Zahagi ardoarekin jarraitu zuten festak, 100 bat lagun inguru elkartuz afaltzeko.

Igandean, meza eta gero, III. Txirindulari Proba egin zuten eta bertan 30 lagun inguruk parte hartu zuten. Geroko bazkarian 100 lagun bildu ziren. Herrik kirolek ere giro ederra jarri zioten, bi talde aritu baitziren elkarren aurka. Bai larunbatean eta igandean trikitilariak jarri zuten giroa.

Festen zehar izan zen bitxiak iriarik. Igandean Donostian U2 tal-



Igandean bazkaria egin zuten 100 lagun inguruk. HITZA



Larunbat gauetan erromeri giroa izan zen Aldabako frontoian. HITZA

deak eman zuten kontzerturako txartel bat zozketatu zuten, bertan zeudenen harridurarako. Aldaba-

ko bizilagun bati bat soberan gelditu zitzaion eta festan zeudenen artean zozketatu zen.

# Asier Tejadok irabazi du Autoen IV. Slaloma

**Zizurkil** » Auto txikiak lortu zituzten lehenengo postuak, antolatzaileek jarritako zirkuitua nahiko estua baitzen.

## ERREDAKZIOA

Zizurkilgo IV. Slaloma irabazi zuen Ander Tejadok Peugeot 205 GTI autoarekin. Guztira 16 autok parte hartu zuten eta lehenengo postuetan auto txikiak sailkatu ziren. Bigarren postuan Sergio Mujikak bukatu zuen Citroen AX GT autoarekin eta auto mota berdinarekin Iñigo Artetxek hirugarren egin zuen. Maddalen Toledok izan

zen parte hartu zuen emakume bakarra eta berarentzat ere saria izan zen. BMWi autoa erabili zuen Slalomean.

Zirkuitua zertxobait aldatu eta aurten estuago jarri zuten. Horrek auto txikiari egin zien mesede eta horregatik lortu zituzten lehenengo postuak. Izan ere, zirkuitua markatzen zuten konoak ukituz gero zenbait segundoko zigorra jasotzen zuten gidariak. Antolatzaileak «gustura» agertu dira ikusle dezente joan zirelako Ugare auzora proba ikustera. Halere, iaz baino zertxobait gutxiago joan ziren. Egun horretan beste hainbat motor lasterketa zeudelako izango zela azaldu dute antolatzaileak.



## IRAGARKIA

2010eko irailaren 27ko, 185 zenbakidun, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Lizartzako Zerrategi Alda A.2 Eremuko A.2.1. Partzelako 26 Udala Etxebizitza Tasatuak Esleitzeko Oinarriak argitaratu dira.

Lizartzako Udaleko udal-zerbitzuetan horretarako jaso den ereduari jarraiki egin beharko dira Udala-Etxebizitza Tasatuak Eskaitze-erregistroa izena emateko eskaerak. Pertsona interesdunei emango zaie eredu hori. Era berean, Lizartzako Udalaren web orrian ere eskuragarri dago ereduak, [www.lizartza.com](http://www.lizartza.com)

Eskaerak aurkezteko epea, 2010eko azaroaren 11an amaituko da.

Lizartzan, 2010eko irailaren 27an.  
Lizartza a 27 de septiembre de 2010

ALKATEAK/LA ALCALDESA  
Izpto/Fdo: Regina Otaola Muguerza



Asteasuko azokak jende ugari bildu zuten; bertatik nahiz Euskal Herritik etorritakoek jarri zituzten 60 postu inguru. s. g.



Alegian bertako baserriar eta artisauen produktuekin osatu zuten azoka berezia. SARA GOMEZ



Bidegoianen sagardoa nola egiten den ere erakutsi zuten. SARA GOMEZ



Ibarran, piperrez gain, beste hainbat gauza ere izan ziren salgai. ION ALEJOS

## Igandea, azoken eguna

**Gizartea** » Asteasu, Alegia, Ibarra eta Bidegoianen jende ugari bildu zuten herenegun egindako azoka bereziek.

### ERREDAKZIOA

Azoken eguna izan zen igandekoa, eskualdean. Alegia, Asteasu, Bidegoian eta Ibarra bertako baratzetako produktuak, ganadua, artisauak egindako lanak... aurki zitezkeen. Eguraldiak ere lagundu zuten, eta zerua goibel jaiki baldin bazen ere, orduak aurrera egin ahala tenperatura goxatzen eta garbitzen joan zen.

Asteasun, ganadurekin batera, artisauak, elikagaiak, trikitilariak eta zarpantzarrik izan ziren. Bertako nahiz kanpokoan artean, 60-65 postu jarri zituzten herrigunean. Antolatzaileak gustura agertu ziren jendearen erantzunarekin, eguerdi aldean, inoiz baino jende gehiago ikusi baitzitezkeen. Saltzaileak azaldutakoaren arabera ere,

salmentak oso onak izan ziren, bertatik eguerdirako generorik gabe geratu baitziren.

Azokarekin batera, bigarren urtez, Arroz-Esne Lehiaketa jokatu zen. 19 lagunek hartu zuten parte, eta horietan irabazleak Otabardi etxeko Malen eta Uxune izan ziren. Bigarren, Olarra Goikoko Maribel eta Agustin geratu ziren eta hirugarren, Aitari Esker etxeko Julio Olaetxea. Goizean zehar, esne behien erakustaldia ere izan zen. Gainera, Asteasu bertako behien esne banatu zuten bertaratu zirenen artean. Eguerdiko atsedendialdiaren ostean, arratsaldean jende ugari hurbildu zen Gorriti eta bere animaliak ikusteko, baita, azokatik, osteratxo bat emateko ere.

**Ibarran, piparra baino gehiago**  
Hauspibarrak antolatuta, *Ibarra, azoka eta piparra* izenburupean, azoka berezia egin zuten. Bertako baratzetako produktuek kolore biziz jantzi zituzten Emeterio Arrese eta San Bartolome plazak.

Azokarekin batera, ikusmin handia sortu zuen Ibarra Piparraren Euskal Herriko VI. Lehiaketa Gastronomikoak. Alde batek, piparrada prestatu behar izan zuten parte-hartzaileek, eta beste-tik, osagai hau zeramaten pintxoak. 16 bikotek hartu zuten parte baina Alberto Zubelzuka eta Karlos Aretxagak osatutako bikotea izan zen garaile.

**Bidegoianen, sardinen usainera**  
Joan den astea, Kultur Astea ospatu zuten Bidegoianen, eta ekitaldiei amaiera emateko, azoka berezia egin zuten Goiatzen. Bertan, baserriko produktuak ez ezik, herriko ekoizleek taloak eta erretako sardinak dastatzeko aukera

### » IBARRA AZOKA ETA PIPARRA

#### Tolosaldeko XIII. Ezti Txapelketa

- 1. Simon Nazabal (Elduain).
- 2. Patxi Imaz (Hernalde).
- 3. Ramon Lopetegi (Belauntza).

#### Piparrada Lehiaketa

- 1. Alberto Zubelzu eta Karlos Aretxaga (Xepla-Ibarra).
- 2. Xabier Mendizabal eta Jose Juan Ijurko (Zubi-Musu-Donostia).

ere izan zen. Honez gain, han bertan dolarea prestatu eta sagardoa nola egiten den erakutsi zuten.

#### Alegian, bertako produktuak nagusi

Igandeko azken azoka, Alegiako izan zen. Han, bertako baserriaren produktuak izan ziren salgai. Herriko ekoizleen lanaren fruituak ikusi ahal izan ziren. 6 barazki eta jakien postuak izan ziren (ogia,

- 3. Jose Manuel Irigoien eta Tomas Nuñez (Tolare Sagardoaren Kofradia-Hernani).

#### Pintxo Lehiaketa

- 1. Alberto Zubelzu eta Karlos Aretxaga (Xepla-Ibarra).
- 2. Jose Manuel Irigoien eta Tomas Nuñez (Tolare Sagardoaren Kofradia-Hernani).
- 3. Manu Gorostiaga eta Miguel M<sup>a</sup> Irigoien (Bar Julian-Tolosa).

barazkiak, gozokak...), eta beste hurrenbeste, artisautzakoak. Animalientzako txoko bat ere gorde zuten.

Plazan egin zen azoka alaitzeaz Txintxarri abesbatzakoak eta hauekin batera beste hainbat herriar arduratu ziren. Izan ere, abesbatzakoek deituta kantu kalejira egin zuten herriko kaleetan zehar euren 50. urteurrenaren harira.

# Emakumea Pilotari egitasmoa finkatzen ari da eskualdean

**Pilota** » Eskola Kirola, aisialdirako paleta ikastaroak eta kirol federatuari dagokion eskaintza aurkeztu dute.

## ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak, 2004tik Gipuzkoako hainbat herritan abian den Emakumea Pilotari proiektuaren baitan, eskaintza berria dakar hasi berri den 2010-2011 ikasturterako. Horiek horrela, Tolosaldean Zizurkil, Ibarra, Tolosa eta Irurara helduko da aurtengoan ere, finkatzen ari den seinale.

## Hiru atal

Hiru alorretan banatzen den egitasmo honen hiru atalak garatuko dira bertan.

Batetik, Eskola Kirola, non, 10-16 urte bitarteko gazteek hartuko duten parte, honakoan Nesken Paleta Eskolak eta Gipuzkoako eskolarteko Paleta Txapelketa izango dituzte ardatz.

Bestetik, 18 urtetik gorako gazteei zuzendutako partaidetzako kirola jorratuko dute eta aisialdiko paleta ikastaroak eta erakustaldi partidak egitea aurreikusten dute. Bukatzeko, kirol federatua ere jorratuko dute, non teknifikazio gu-

neak eta lehiaketa egutegi osatua garatuko dituzten.

Horiek horrela, Eskola Kirolaren baitan, 10-16 urte bitarteko neskenzat paleta eskolak jarri nahi dituzte abian. Aurreko urteetan ere izan dira Irura, Tolosa eta Ibarra, adibidez. Bertan, astean entrenamendu bat egiteko aukera eskaintzen zaie pilotariei, ahal den heinean paleta eta pilota norbere ezaugarri eta adinera egokituz, eta Gipuzkoako Eskolarteko Paleta Txapelketan ere parte hartu ohi dute. Ikasturtea urritik ekainera luzatuko da.

## Aisialdiko paleta ikastaroak

Aisialdiko paleta ikastaroei dagokienez, urritik ekainera, astean behingo maiztasunarekin, ordu eta erdiko paleta saioak egingo dituzte bertaraten direnek, teniseko pilotarekin eta paleta arinekin.

Ikasturtearen amaieran, gainera, ohitura bihurtu den lez, azken festa batean Gipuzkoako herri ezberdinetan ikastaroa egiten ari diren emakumeekin bilduko dira, Emakumea Pilotari Egunean.

Aurreko edizioetan 80 inguru elkartu ziren eta egun pasa ederra egin zuten Iruran. Bertan jokatzeko da Emakumezkoen Paletako Gipuzkoako Txapelketa Herrikoia-zen azken fasea ere.



Pasa den maiatzean Iruran egindako Emakumea Pilotari Egunean 80 bat emakume bildu ziren. HITZA

Kirol federatuari dagokionez, eskualdeko herri bat baino gehiagotan ikusi ahal izango dira nesken gomazko paleta partidak, bai ezker horman eta baita trinketeen ere.

Jardueretan izena emateko Gipuzkoako Pilota Federaziora (943 4714 63) edo 655 7194 92 (Ainhoa) telefono zenbakietara deitu behar da. Ibarra, Kiroldegian dauden

esku orriak betez ere eman daiteke izena.

[www.blogak.com/emakumea\\_pilotari](http://www.blogak.com/emakumea_pilotari) webgunean osatu daiteke informazioa.

## » ESKAINTZA

### Zizurkil

- **Arloa.** Aisialdiko paleta ikastaroa.
- **Lekua.** Udal pilotalekua.
- **Eguna eta ordua.** Asteartea 19:30etik 21:00etara.
- **Prezioa.** 105 euro.
- **Izen-ematea.** Gaur da azken eguna.
- **Ikasturtearen hasiera.** Urriak 5.

### Ibarra

- **Arloa.** Aisialdiko paleta ikastaroa.

- **Lekua.** Kiroldegiko pilotalekua.
- **Eguna eta ordua.** Astelehena 19:00etatik 20:30era.
- **Prezioa.** 105 euro.
- **Izen-ematea.** Gaur azken eguna.
- **Ikasturtearen hasiera.** Urriak 4.

### Tolosa

- **Arloa.** Aisialdiko paleta ikastaroa.
- **Lekua.** Beotibarren.
- **Eguna eta ordua.** Astearte 09:00etatik 10:30era.
- **Prezioa.** 105 euro.

- **Izen-ematea.** Gaur azken eguna.
- **Ikasturtearen hasiera.** Urriak 5.

### Irura

- **Arloa.** Eskola Kirola.
- **Lekua.** Udal pilotalekua.
- **Eguna eta ordua.** Proba eguna urriak 6 izango da 18:30etik 19:30era.
- **Prezioa.** 90 euro (Irurarrrek udalari ordainduko diote).
- **Izen-ematea.** Irailaren 30etik urriaren 6ra.
- **Ikasturtearen hasiera.** Urriak 6.



## HILEKO TXOKOA

harpidedunen  
**TXOKOA hitza**

### ① IKASTAROA

Groseko indarra surf eskolak eskeinitako surf ikastaroa



### ② LIBURUA

Pedro Mari Otañoren liburuaren 15 ale



### ③ SARRERAK

Txindokiko Itzala parkerako bi sarrera pare

[www.txindokikoitzala.com](http://www.txindokikoitzala.com)  
[info@txindokikoitzala.com](mailto:info@txindokikoitzala.com)



### ④ ANTZERKIAK

Agerre Antzerki taldearen DOLTZA lana ikusteko bi sarrera pare



Txirri, Mirri eta Txiribiton Juniorrek eskainiko duten **Katxurri Miliputxi** antzezleerako bi sarrera pare



Parte hartzeko deitu edo idatzi: 902-82 02 40 / [txokoa@hitza.info](mailto:txokoa@hitza.info)  
[harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunearn, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

## E Emaitzak

## PILOTA

## GIPUZKOAKO TXAPELKETA

KADETEAK, LEHEN MAILA	
Mujika-Iruretagoiena (A-S)	22
Intxurre	5
Altuna-Otamendi (Zazpi Iturri)	22
Intza	7
KADETEAK, BANAKA	
Iribarria (Zazpi Iturri)	22
Tartaloetxe (Matxinadiarena)	7
KADETEAK, BIGARREN MAILA	
Galarraga-Aburuza (A-S)	22
Ziotza1	18

## JUBENILAK, BANAKA

Perez Albeniz (A-Saiaz)	11
Goierri	22
Jaka (Zazpi Iturri)	22
Txurruka (Lagunak)	3

## JUBENILAK, LEHEN MAILA

Labaka-Barandiaran (A-S)	22
Hernani	20
Gallurralde-Leunda (Z. Iturri)	22
Gazteleku	20

## JUBENILAK, BIGARREN MAILA

Maiza-Elustondo (A-S)	22
Hernani1	12

## SENIORRAK, BINAKA

Arratibel-Galarraga (A-Saiaz)	13
Lapke	22
Zabaleta-Zinkunegi (A-Saiaz)	22
Usurbil2	13

## I. Urbieta-Labaka (A-Saiaz)

Quina-Otaegi (A-Saiaz)	9
Eibar	22
Ropon-Leunda (Zazpi Iturri)	22
Usurbil	14

## SAN MATEO TXAPELKETA, FINALA

PROFESIONALAK	
Bengoetxea VI-Patxi Ruiz	22
Irujo-Pascual	20

## FUTBOLA

## ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

HIRUGARREN JARDUNALDIA	
Bergara	2
Tolosa CF	1

## SAILKAPENA

1. Hondarribia (7 puntu); Oiartzun (7 puntu); 3. Hernani (6 puntu); 6. Tolosa (4 puntu).	
--	--

## ERREGIONAL PREFERENTEA

HIRUGARREN JARDUNALDIA	
Tolosa CF 'B'	1
Getariako Keta	1
Intxurre KKE	1
Zestoa	2

## SAILKAPENA

1. Zestoa (9 puntu); 2. Mutriku (7 puntu); 3. Elgoibar (6 puntu); 6. Tolosa CF 'B' (4 puntu); 11. Intxurre KKE (3 puntu).	
---	--

## ARETO FUTBOLA

## NAZIONAL A MAILA

BIGARREN JARDUNALDIA	
Muriedas Urrutia	1
Lauburu KE	5

## SAILKAPENA

1. Zierbana (3 puntu); 2. Castro Urdiales (3 puntu); 3. Atenea Ikusnet (3 puntu); 4. Lauburu (6 puntu).	
---	--

## NAZIONAL B MAILA

LEHEN JARDUNALDIA	
Laskorain Ikastola	6
Euskalduna	3
Soloarte	3
Transportes Lakunza	6

## SAILKAPENA

1. Concepto Createch (3 puntu); 2. Laskorain Ikastola (3 puntu); 3. Soloarte (3 puntu); 13. Transportes Lakunza (0 puntu).	
--	--

## OÑATIKO ARTZAIN TXAKURREN TXAPELKETA

## SAILKAPENA

BIGARREN JARDUNALDIA	
1- Antonio Alustiza, Tiki	455 puntu
2- Pierre Pommies, Usso	419 p
3- J.M. Jauregi, Leze	-

## AIZKORA

## NAFARROAKO TXAPELKETA, KANPORAKETA

1- Floren Nazabal	11:58
2- Juan Jose Lopez	12:59
6- Jon Rekondo (Leitza)	15:10



Laskorain Ikastolako jokalariek izerdia gogotik bota behar izan zuten lehen jardunaldian. HITZA

## Ibarrako Lauburu 1-5 irabazi du eta Tolosako Laskorainek 6-3

## ERREDAKZIOA

Ibarrako Lauburu taldeak garai-pen garrantzitsua lortu zuen Kantabriar, Muriedas Urrutiaren aurka. Lehen zatia 1-0 amaitu zen, etxekoan alde.

Ibartarren entrenatzaileak, Txubelek, atsedendian erretolika ederra bota zien jokalariei. Honen ondorioz, bigarren zatian ibartarrek best gogot eta hiru puntuak lortu zituzten.

## Lehen jardunaldi borrokatua

Pauso finko bat emanez ekin dio Laskorainek aurtengoan 2010-2011 denboraldi berriari. Urterot gertatzen den moduan, egon daitezkeen zalantzak uxatzea beharrezkoa izaten da ahalik eta azkarren, eta taldeak bere lehen garai-pena eskaini ahal izan zion Usabalgo harmailetara hurreratu-tako zalegoari.

Parez-pare Andoingo Euskaldunako mutilak, horitxoentzat aski ezaguna den Jacinto Diaz entrenatzaile trebatuak landutako taldea eta bere jokoa ideia garbi be-

zain zuzenetan oinarritzen duena. Kontuak-kontu, eta tolosarrek maila altuagoa dutela erakutsi arren, 3 puntuak galbidean izan ziren eta neurketa bakoitza irabazteko gogotik lan egin beharko dela urte guztian zehar argi ikusi zen.

Lehen zatia modu bikainean hasi zen etxekoentzat, jokoan eta markagailuan abantaila garbi bat erdietsiaz, Murgi eta Telleriaren golek 2-0ekoa ipintzeaz gain, konfiantza eta erosotasunez jokatzeko laga zituzten Javiren mutilak Laskorain minuturik onenak gertatu zirelarik norgehiagokaren hasieran. Minuturik onenak, minuturik txarrenetan bihurtu daitezke kolpe batez eta kanpotarrek dizdira gehiegirik gabe baina bi jokaldi puntualetan berdinketa lortuaz bukatu zen lehen zatia. Atsedendiak joera aldatu beharrean txarrrera jo eta Euskaldunakoek bereak eta bi egin ondoren aurrea hartzea lortu zuten lehenbiziko eta azkenengo aldiz.

Arratsaldearen itxura txarra konpontzeko denbora luzea geldit-

zen zuten aurretik eta tolosarrek behala sartu zuten hurrengo martxa. Telleriak estrategiako falta bat sareratu zuen berdinketa ipintzeko eta Barriola, Saldias eta Murgiren golek, 6-3ko azken emaitza itxi zuten azken minutuetan zapalgailu bat izandako Laskorain bati garai-pena emateko.

Datorren astean Zarautzera egin beharko du bisita taldeak Ceramicas Nogales boteretsuaren aurka indarrak neurtzeko, denboraldia pixkanaka joango da bakoitza bere tokian jartzen baina gorako postuetan ibili daitezkeen bitaldere arteko gatazka zirrargarria izan daiteke.

Javi delegatua, Javi entrenatzailea, Imanol prestatzailea, Endika, Telleria, Barriola, Murgi, Gil, Bellosa, Ekhi, Joniko, Saldias eta Aratz izan ziren garai-penaren protagonistak.

Filialari dagokionez, Aitorrek zuzenduriko bigarren taldeak 5-2 galdu zuen Lazkaon eta Sancho-ren hirugarren taldeak 1-4 irabazi zuten Apezpitan.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA  
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

# Iruran «orain arteko markarik handiena» ikusi dute

**Herri kirolak** » Idoia Etxeberria harri-jasotzaileak egin du errekorra; aizkoran, Jon Rekondo leitzarria Nafarroako Txapelketatik kanpo gelditu da.

## ERREDAKZIOA

Asteburuan harri-jasotze eta aizkora probak jokatu dira Iruran eta Uharteko Irufean.

Gure eskualdean oriotar bat izan da protagonista: Idoia Etxeberria. 17 urteko harri-jasotzaileak «orain arteko markarik handiena» ezarri zuen San Migel jaien baitan.

## Jon Rekondo segundo batera

Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketaren kanporaketa jokatu zen igandean Uhartean. Saillkatzea espero zitezkeenekin batera; hots, Nazabal, Lopez, Antonio Senosiain eta Donato Larretxearekin batera, Oihan Larretxea saillkatu zen Maila Nagusiko Nafarroako Aizkora Txapelketaren finalerako. Oihan Larretxea, beraz, lehen aldiz ariko da finalean. Jon Rekondo leitzarria aldiz, segundo bategatik ez zen saillkatu. Denborarik onena Floren Nazabalek egin zuen. Lopez bigarren saillkatu zen minutu batera. Finala urriaren 3an, igandean, jokatu da Etxarri Aranatzetan.

Uharteko kanporaketan zortzi aizkolari aritu ziren eta finalerako bost txartel aurkitzen ziren lehian. Aizkolari bakoitzak bost pago-enbor ebaki behar izan zituen: bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat (finalean izango duten lanaren erdia).

Jon Rekondo ez zen hain gaizki hasi. Hirugarren enborrean hirugarren denborarik onena zuen lei-

tzarrak. Laugarren enborrean ordea, bosgarren postuan aurkitzen zen, eta Donato Larretxea zerman atzetik, 3 segundora. Horrela amaitu izan balu, finalean egongo litzateke baina azken enborrean Donato Larretxeak 16 segundo kendu zizkion Rekondori.

Oihan Larretxea berriz makal ibili zen azken enbor honetan. Bosgarrenean leitzarri 14 segundo ateratzen zizkion. Azken enborrean leitzarri 13 segundo jan zizkion Larretxea gazteari, baina ez ziren nahikoak izan eta finalerako txartela segundo bakarrera utzi zuen Jon Rekondok. Azken postuetan Manuel Kañamases eta Ander Erasun gelditu ziren. Hala eta guztiz ere maila lehian parte hartu ez zuten Mindegiak eta Barbere-nak galduko dute.

## Iruran marka berria

Idoia Etxeberriak orain arteko markarik handiena ezarri zuen Irurako Jaietan.

Orioko gazte gipuzkoarrak, 17 urte eta 90 kilo dituenak, bost jasoaldi egin zituen 138 kiloko koadroarekin, igandean. Orain dela urtebete egin zuen azken marka koadroarekin, eta orduan 120 kiloko bizkarreratu zuen lau aldiz. Horrenbestez, urte baten buruan 18 kilo gehiagoko harria bizkarreratu du, baina, gainera, bost jasoaldi eginda.

Miren Urkiola bizkaitarrak zuen igandera arte emakumezkoen markarik handiena ezarrita, 133 kiloko jasota, aurtengo martxoaren 27an.

Irurako plaza jendez bete zen emakumezkoen arloan markarik handiena izan zitekeena gertutik ikusteko. Tranpaldan egin zuen marka ahalegina Idoia Etxeberriak. Beroketak egin bezain laster ekin zion 138 kiloko koadroari, eta hutsik egin gabe jaso zuen bizkarrera bost aldiz, bere anaia eta Pedro Saizarren laguntzarekin.

Bosgarren jasoaldia bost minutuko txanda agortu baino 10 segundo lehenago egin zuen, eta izugarritzko pozarekin jaso zituen bi besoak garaipenaren seinale, eta ez zen gutxiagorako izan, inoiz emakumezko batek ezarri duen harri-jasotze markarik handiena izan baitzen.



Irurako jaien baitan jarri zuen errekorra Idoia Etxeberria oriotarrak. HITZA



Jon Rekondo leitzarria. HITZA

Eskuratu **Gipuzkoako natur eremuetako mapen bilduma DOAN!**

Jaso **urriaren 3an BERRI**arekin etorriko den **kartilla**, eta bete hurrengo egunetan argitaratuko ditugun kupoiekin.

**10 liburuxka:**  
4 parke natural:  
Aiaiko Harria, Aizkorri-Aratz, Aralar eta Pagoeta  
3 biotopo:  
Leitzarri, Iñurritza eta Flysch Deba-Zumaia  
Parketxe sareak • Talaiia bidea  
Ibilbide irisgarriak: Larraitz eta Arantzazu  
**Bakoitzean hainbat ibilbide + guztia bilduko duen zorroa**

Argitaratzaileak

gizarte **kutxa** **GIPUZKOA** zurekin, aurrera. **berria**

Aukera ezazu, Bizi euskaraz

www.gipuzkoamendimendi.net



18°  
11°

GOIZA LAINOTUA  
ARRATS. EURIA  
BEROENA 20°  
HOTZENA 12°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Alegia.** Urriaren 6rako Bertiz eta Elizondora irteera antolatuta du jubilatu elkarteak, Hondarrriban geldituz itzuleran, 30 eurotan. Izen-ematea, elkartean 11:00etatik 12:00etara.  
■ **Tolosa.** Orixe Institutuan ondorengo egunetan egingo dituzte bilerak gurasoentzat eta ikasleentzat, kurtsu hasiera dela-eta: DBH3 eta DBH4koek gaur; eta Batxilergoko lehendabiziko eta bigarren mailakoek etzi.

### Festak

■ **Irura.** San Miguel jaiak: 18:00etan kalejira buruhandiekin eta 19:00etan Loatzo Musika Eskolako bandaren emanaldia plaza.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartzotz auzoa, 9. 943 67 51 18.  
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Iratz Balerdi Amundarain (Irura).**  
Gaur urte bat. Zorionak eta muxu handi bat famili guztiaren partetik.



### LANDAK

Enara Zuriarrain: «Argazki hau Aureilhan lakuan atera genuen, Landetan. Haurrak gurasoekin joaten dira aha-teei janaria ematera, eta ondoan, ibilaldi txiki bat egiteko aukera dute, lorez beteriko erakusketa natural batean!». ENARA ZURIARRAIN

### GINEBRA

Luis Angel Gonzalezek argazki hau bidali digu Argazki Lehiaketan parte hartzeko: «Leman lakuko argazkia da, Ginebran arratsalde batean ateratakoa». LUIS ANGEL GONZALEZ



### HERBEHEREAK

Ane Zabala: «Uda honetan Herbehereetan ibili gara. Bertan, errota asko zeuden, eta asko gustatu zitzaizkigun, tamaina eta kolore askotakoak baitzeuden!». ANE ZABALA

argazki lehiaketa

**XII. HITZA Argazki Lehiaketa Animatu eta parte hartu!**

**NORA BIDALI?**

argazkiak@tolosaldeko-hitza.info helbide elektronikora  
Irailak 30 arte

**HITZA** udarako argazki lehiaketa

**1. Saria**

Eako...  
partea...

**2. Saria**

Getariako  
landetxean bi  
gau bat pas...

**3. Saria**

Gorrotz  
eskem...

**Parte-hartzaileak HITZAko materiala...**